

BALOREZKO PROPOSAMENA

Proposatzen dugun aplikazioak gizarte inklusiboagoa eratzea du helburu. Gaur egun gizarte inklusiboa izaten saiatzen da, baina benetan betiko arazoek bizirik jarraitzen dute; adibidez, zure itxuragatik baztertua izatea oso ohikoa da, arropa industrian batez ere. Horretarako gure aplikazioak soluzioa ekarriko du. Gure aplikazioak gure gorputzera egokitzen den arropa aurkitzeko erreztasunaz aparte, txarto sentiarazten gaituen momentuak ekiditzeko ere balio izango du; adibidez denda batean gure neurriko arropa aurkitzen ez dugunean gizarteak inposatutako gorputz patrioiak jarraitzen ez ditugula sentiarazten gaitu eta horrek nolabaiteko bazterketa eragiten du. Horregatik, gure dendak interneten topatuko du zure arropa neurria momentu txiki batean. Horrela, ez duzu denborarik galduko zuk bakarrik bilatzen.